



Tarjeta Sanitaria Europea

## INFORMAZIO OHARRA

Europako Osasun Txartela (EOT) Europako Esparru Ekonomikoko edo Suitzako (1) lurraldean aldi baterako egonaldian beharrezkoak diren osasun prestazioak jasotzeko eskubidea frogatzen duen agiri pertsonala eta besterenezina da, prestazioen izaera eta egonaldiaren iraupena kontuan hartuta, egonaldiaren herrialdeko legeriaren arabera, egonaldiaren xedea turismoa, jarduera profesionala edo ikasketak direla kontuan hartu gabe.

**Europako Osasun Txartelak (EOT) ez du balio bidaiak tratamendu medikoa jasotzeko asmoa duenean**, kasu horretan beharrezkoa baita Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak (GSIN) dago-kion inprimakia igortzea, Osasun Zerbitzuak aldeko txostena egin ondoren. Ez da baliozko dokumentua ere zure bizilekua beste estatu bateko lurraldera lekualdatzen baduzu.

**EOT indarrean dagoen bitartean erabili ahal da, baldin eta bere titularrak lortzeko bete zituen baldintzak betetzen jarraitzen baditu. Bestela, izan daitezkeen gastuak erreklamatu ahal izango zaizkizu onura okertzat jotzeagatik, 883/04 (EE) Erregelamenduaren 76. artikuluan ezarritakoaren arabera.**

Zenbait kasutan, osasun zaintzatik eratorritako gastuen zenbateko finkoa edo portzentaje bat zure gain hartu beharko duzu, bidaiatzen ari zaren Estatuaren asegurdunek bezalaxe. Zenbateko horiek ez dira itzuliko.

Ez bazara Espainiakoa, edo Informazio Ohar honen amaieran zerrendatutako herrialde bateko biztanlea, Espainia barne, eta Danimarkara, Suitzara, Liechtensteinerara, Islandiara edo Norvegiara bazoaz, herrialde horietan ez duzu osasun-prestazioak jasotzeko eskubiderik izango.

EOT eskatu edo berritzeko zure helbidetik egin ahal izango duzu Zure Gizarte Segurantzaren atariaren bidez (<https://sede-tu.seg-social.gob.es/>), Interneten egoitza elektronikoaren bidez (<http://run.gob.es/pvssdm>) edo telefonoren bidez 901 16 65 65.

Egonaldiaren herrialdean zure EOT onartzen ez bada SOLVIT sarera jo dezakezu ([solvit@ue.maec.es](mailto:solvit@ue.maec.es)), hots, Gizarte Segurantzaren Erkidegoko Araudia aplikatzen duten administrazioen arteko arazoak konpontzeko doako zerbitzua.

- (1) **Zer estatutan erabili daiteke EOT:** Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Kroazia, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo, Malta, Norvegia, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Errumania, Suedia eta Suitza.